



DEBAko UDALA

2016SPLE0002
2. BILERA: OHIKOA 2016-02-25

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: bigarrena

Eguna: 2016/02/25

Hasiara-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 20:10

Onarpen-eguna: 2016/03/31

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M^a LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

UNAI LEKUBE ARANBERRI

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

Bertaratzeak eta irteerak

Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/01/28).
2. Adierazpen instituzionala-martxoak 8.
3. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
4. Eskariak eta galderak.

Urgentziazko deklarazioa:

Ondoren zehazten den gaia ez da bilera-deian legezko epean sartu. Halaber, Udalbatzarrak erabaki du gai hauei buruzko ebazpena gaurko bileran hartzea, urgentea dela deklaratu baitu. Gaiak urgenteak deklaratzeko erabakia aho batez hartu du, eta beraz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 47.2 artikulua adierazten duen gehiengoa gutxienez lortu da.

Hori guztia ondorengo lege eta erregelamenduen arabera egin da: apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Testu Bateratuaren 51. artikulua eta azaroaren 28ko Errege Dekretu bidez onartutako Udalbatzen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen Erregelamenduko 113.artikulua.

- 1. Adierazpen instituzionala. EH Bilduk aurkeztuta-martxoak 8.**



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/01/28)

2016ko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamaika bilkuran direla.

2.- Adierazpen instituzionala-martxoak 8- onartzeko proposamena.

Iritziak eta galde erantzunak

Marilu Albizu zinegotziak, Eudelek proposatutako adierazpen instituzionalaren aurkezpena egin du, eta nabarmendu nahi izan du adierazpen horren ondoko puntua:

“Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozteak.”

Adierazi du, beraiek benetako konpromisoa hartu nahi dutela emakumeen alde, izan ere, egun batetik haratago doan gaia da eta benetan garrantzia daukana dela, herri mailan zer egiten ari den gaiaren inguruan, esate baterako, aurtengo udal-aurrekontuan %50eko igoera aurreikustea helburu horretarako.

Debako emakume-taldeari egin dio erreferentzia eta martxoaren 8ko egitaratu aukeztu ondoren guztiak gonbidatu ditu parte hartzera.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, beraiek alde bozkatuko dutela, baina eskatu du aktan jasotzea puntu bakoitzari, beraien ustez, erantsi beharrekoak:

-1º puntuan. *“... emakumeek eta gizonen parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan”* Europako eraikuntzan eta erabakiak hartzeko orduan.

-2. puntuan. *“Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei...”* Aldundiari, Jaurlaritzari etb

“... beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da”, eta 4/2005 Legea aktibatzea eta diru partidak jartzea xede horretarako.

-4. puntuan. *“Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkrituak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien botereen arabera”,* Udalak konpromiso propioak hartzea *“eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.”*



DEBAko UDALA

-5. puntuak. *“Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, ~~etxeko indarkeria~~ indarkeria matxista eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak”.*

-6. puntuak. *“Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatuetako gobernuari eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionalari” eta berri mailan onartutako protokoloa aktibatzea.*

Erabakia.

Adierazpen instituzionalaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamaika bilkuran direla:

Lehenengo.- Martxoaren 8aren inguruan ondoko adierazpen instituzionala onartzea (EUDELeke proposatutako testua):

- Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan –tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonen parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan;
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarriko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuari eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da;
- Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez;
- Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkretuak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuari ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.
- Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak;



DEBAko UDALA

- Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatuetako gobernuei eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionaleri;
- Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozteak;
- Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.

Urgentziatzko deklarazioa:

Ondoren zehazten den gaia ez da bilera-deian legezko epean sartu. Halaber, Udalbatzarrak erabaki du gai hauei buruzko ebazpena gaurko bileran hartzea, urgentea dela deklaratu baitu. Gaiak urgenteak deklaratzeko erabakia aho batez hartu du, eta beraz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 47.2 artikulua adierazten duen gehiengoa gutxienez lortu da.

Hori guztia ondorengo lege eta erregelamenduen arabera egin da: apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Testu Bateratuaren 51. artikulua eta azaroaren 28ko Errege Dekretu bidez onartutako Udalbatzen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen Erregelamenduko 113.artikulua.


1. Adierazpen instituzionala. EH Bilduk aurkeztuta-martxoak 8.

Erabakia.

Adierazpen instituzionalaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamaika bilkuran direla:

Lehenengo.- EH Bilduk, Martxoaren 8aren inguruan aurkeztutako adierazpen instituzionala onartzea:

- 1.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du berdintasun aurrekontua errespetatzeko urtero, 2017tik 2019ko aurrekontu partida orokorretan.
- 2.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko kale izendegia errebisatu eta emakume izenak ezartzeko.
- 3.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko.
- 4.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du diru-laguntzetan genero klausulak ezartzeko.



DEBAko UDALA

- 5.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Biolentzia Matxistaren kontrako protokoloa landu eta abian jartzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.
- 6.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko puntu beltzen mapa osatzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.
- 7.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko jai eta ospakizunetan parte hartze parekidea landu eta sustatzeko, herriko taldeekin elkarlanean.
- 8.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du udal eskumeneko sail guztietan generoa lantzeko, horretarako neurri batera bat aurkeztuko duelarik legegintzaldian zehar garatzeko.
- 9.- Debako Osoko Bilkurak, dei egiten du emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.

3.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

4	2016/01/27	3 zenbakidun auto taxi baimenaren baitan, ibilgailuaren ordezkapena onartzea.	2016SEES0001
5	2016/01/29	Administrari laguntzaileen lan-poltsan parte hartzeko onartutako eta baztertutako behin behineko zerrendak	2015SEBT0001
6	2016/02/08	Udal erroldan baja ematea	
7	2016/02/08	Udal erroldan baja ematea	
8	2016/02/08	Udal erroldan baja ematea	
9	2016/02/08	Udal erroldan baja ematea	
10	2016/02/10	Administrari laguntzaileen lan-poltsan parte hartzeko onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendak	
11	2016/02/12	Udal honen interesen defentsa 391/2015 prozeduran ANGEL OYARTZUN NARVAEZ abokatuaren esku uztea.	
12	2016/02/15	Lojendioko "10" guneko urbanizazio lanei buruzko kontuen behin betiko onarpena: Zorren kontsignazioaren aurretik ordaintzeko eskaintza	

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

9.- Eskariak eta galderak.

Alkateak azaldu du, Euskotrenekin hitz egin duela ematen duten zerbitzuaren ordutegia zabaltzearen inguruan eta jasotako erantzuna izan dela, horren bideragarritasun eza.

Bestetik, Lurreldebuseko autobusei dagokionez, geltokiei eta ordutegiei buruz galdetu duela, eta jasotako erantzunak azaldu ditu.

Horren harira Mainer zinegotziak gogora arazi du, Lurreldebusek ordu poltsa bat egongo zela aitortu zuela.



DEBAko UDALA

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2016ko otsailaren 25a

IDAZKARIA



